

Gernika-Lumotik Belendiz aldera dugun bidegorritik egingo dugu txango honen lehen zatia. Bidean Olesko eta Uarka auzoak zeharkatuko ditugu eta bertako baserri, errota, dorretxe eta ermitak ikusteko aukera izango dugu. Baserri hauetako batzuk oraindik mantentzen dituzte ohiko labeak, ortuak eta animalientzako korta eta bazkalekuak.

Pinu artean, auzotik aparte dugu San Lorentzo ermita ederra eta handik gora egingo dugu Basobarriko bidegurutzera heltzeko. Hortik aurrera, Lezikara heldu arte, PR-BI 180aren marka zuri-horiak jarraitu beharko ditugu.

Oma baso margotura helduko gara lehenik eta bertako irudi artean osteratxo bat egin eta gero, Omara jaitsiko gara. Haran honen edertasunak ez du parekorik gure eskualdean. Inguruko mendi eta artadietan aurkitu zuten bizilekua garai desberdinetan gure arbasoek. Eta haranaren bealderan eraiki zituzten inguru honetako baserri ederrenetakoak, duela ehunka urte.

Oma erreka isila Bolunzulon sartzen da mendi barrenean. Hurbil zaitetz!

Basondoko harana zeharkatu eta gero Santimamiñeko koba izango dugu ikusgai. Har ezazu tartetxo bat bere historia ezagutzeko!

Santimamiñeko ermita albotik, artadiaren mugatik, Gautegiz-Arteagako Olaldera jaitsiko gara. Oraindik ikusi ditzakegu erreka txiki honek martxan jarri zituen errotetako batzuk. Txangoa bukatzeko herriko plazara heldu beharko gara.

Toponimia, hizkuntza ondarea

Lekuan lekuko toponimiak historiaren parte bat gordetzen du; baserrien izenak, gertaera jakin batenak, lekua bera deskribatzen duten izenak, izen mitologikoak... Gure eskualdean toponimiak berba egiten digu. Entzun diezaiogun!

badakizu?

Olak burdin lantegiak izan ziren. Boluak, berriz, errota. Ibilbide honetan erreka ertzeko lantegi hauei lotutako toponimo ugari aurkituko dugu: Bolunzulo, Oleta, Goikoerrota, Olakoerrota...

oma eta basondoko haran ederrak

OMA ETA BASONDO

Iraganera bidaiatzen dugula dirudi Oma eta Basondoko haranetatik gabiltzanean. Bertan, edertasun handiko baserriak, lagarrak, karobiak, ermita eta auzo eskola ikusiko ditugu. Artadiko baso itxian ondarea are aberatsagoa da. Basurdeek, orkatzek, azkonarrek eta katajineteeek, besteak beste, baso hauetan dute bizileku eta babesleku aparta. Beraiek, eta beste gutxi batzuek baino ez dituzte ezagutzen mantu berde honen babespean gordeak dauden ehunka kobazulo.

Oma erreka ederra lur azpian galtzen da Bolunzulon. Hemen eraiki zituzten antzina Oman horren ohikoak izan ziren errotetako bi. Ederrak dira hauen aztarnak.



SANTIMAMIÑE

Gaske talde batek aurkitu zituen 1916. urtean Santimamiñeko margolanak. Urte batzuk beranduago Aranzadi, Barandiaran eta Egurennek osatutako taldeak kobazuloa ikertu zuen. Garai hartan abiatutako ikerlanak oraindik ez dira eten.

Berrogeita hamar bat irudik osatzen dute Santimamiñeko margo bilduma. Bisontea da gehien agertzen den irudia (32), baina honekin batera zaldi (6), orein (1), uro (1), ahuntz (7) eta hartza (1) ere agertzen dira. Gehienak beltzez margotuta daude eta oso gutxi dira grabatutakoak. Zehaztea zaila den arren, badirudi irudiak Behe Madaleinekoak direla.


Santimamiñekoa da Nabarniz eta Ereño arteko mendigune honetan dagoen kobazulorik garrantzitsuenak, baina ez bakarrik. Hor daude Sagastigorri, Ondaro, Aretxalde, Kobaederra...




FITXA TEKNIKOA

13
km
LUZERA

240
m
MALDA





ikurrak

- Abiapuntua
- Helmuga
- Garraio publiko
- Turismo bulegoa
- Aparkalekua
- Taberna
- Natura2000sarea
- Gailurra
- Ikuspegi panoramikoa
- Atsedengunea
- Iturria
- Kobazuloa
- Eliza
- Ermita
- Dorretxea
- Karobia
- Errota
- Geologia interesguneak
- Urdaibai Bird Center
- Hegaztien behaketa
- Omako baso margotua

ezinbesteko bisita



Aukera izanez gero ez ezazu galdu Urdaibai bird centerreko bisita. Oruetako hezeguneari begira, hegaztien migrazioa eta bidaia honetan Urdaibai duen garrantzia ezagutzeko aukera izango dugu. Zentroa bisitatzea ezinezkoa bada, hurbildu zaitez Orueta edota Ozolloko begiratokitara eta gozatu!

omako baso margotua



Omako haranaren hegoaldeko magalean dugu baso margotua, gure eskualdean turista gehien erakartzen dituen lekua. 1982. urtean hasi zen Ibarrola basoa margotzen. Hasieran, bakar-lanean eta margo zuriarekin, ikuspegiarekin jolasean; geroago kolorea lagun. Gizonak, emakumeak, haurrak, begiak, sua, tximista, animaliak... dana dago basoan.